BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2250

EBAZPENA, 2014ko maiatzaren 16koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez herri onurako deklaratzen baitira etxean eta merkataritzan erabiltzekoa den gas naturaleko sarearen honako instalazio hauek: Oiartzungo (Gipuzkoa) Ibarre auzoan gas natural kanalizatua 5 bar-eko gehieneko operazio-presioan banatzeko sarea handitzea.

Erref.: RI 20/24.163 - CGG-2013/11.

Javier Bermejillo Eguia jaunak, Naturgas Energía Distribución, S.A.U.ren izenean eta ordez (helbidea: Concha jenerala kalea 20, Bilbao), Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan eskatu zuen, 2013-12-12an, herri onurako deklaratzea Oiartzungo (Gipuzkoa) Ibarre auzoan Gas Natural Kanalizatua 5 bar-eko Gehieneko Operazio-presioan Banatzeko Sarea.

Espedientea ebazterakoan, beharrezkoa da honako hauek aintzat hartzea eta aipatzea:

AURREKARIAK

Naturgas Energía Distribución, S.A.U.k Martxan Jartzeko Aktaren baterako eskabidea aurkeztu zuen Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan, 2012-03-30ean, hain zuzen B taldeko instalazioak exekutatzeko, betiere Gas kanalizatuko zerbitzu publikoko instalazioak baimentzeko eta zerbitzuan jartzeko ekainaren 9ko 107/1998 Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

2012ko uztailaren 10ean, Martxan Jartzeko behin betiko Akta igorri zitzaion Naturgas Energía Distribución, S.A.U.ri, Oiartzungo (Gipuzkoa) Ibarre auzoan Gas Natural Kanalizatua 5 bar-eko Gehieneko Operazio-presioan Banatzeko Sareari dagokionez, instalazio hori B taldekoa baita (urtero legeztatu beharreko instalazioak, aurretiazko baimenik behar ez dutenak) ekainaren 9ko 107/1998 Dekretuaren 1. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2011ko irailaren 28ko idazki baten bidez, judizio arrunterako demanda aurkeztu zen Donostiako Lehen Auzialdiko 5 zenbakiko Epaitegian. Era horretan, jakin zen trazatuaren eremuan lur-sail pribatu bat dagoela, honako hauen jabetzekoa: Jon Xarles Astigarraga Aizpurua, Ander Astigarraga Azpurua eta Pedro Ugalde Saizar. Oiartzungo Udalak ez zuen jakinarazi partzela hori pribatua denik –Gipuzkoako Foru Aldundiko Katastroan jabari publikoko gisa erregistratuta dago.

Ander Astigarraga Aizpurua, Pedro Ugalde Saizar eta Jon Xarles Astigarraga Aizpuruak aurkeztutako demanda zela-eta, 2013ko uztailaren 19an, Donostiako Lehen Auzialdiko 5 zenbakiko Epaitegiaren epai batek Nuclertec SA. eta Naturgas Energía Distribución, S.A.U. kondenatu zituen Oiartzungo Ibarre proiektuaren obra, Ibarreberri finkatik igarotzen dena, eraistera –finka hori Jabetza Erregistroan inskribatuta dago– eta gauzak berriz lehengo egoeran uztera.

Ebazpen honen oinarriak honako hauek dira:

OINARRI JURIDIKOAK

1.– Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak du espediente hau ebazteko eskumena, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuan ezarritakoaren arabera (2013-04-24ko EHAA).

2.– Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legeak (1998-10-08ko BOE), batetik, eta, bestetik, Gas naturaleko instalazioetako garraioa, banaketa, merkaturatzea, horniketa eta baimen-prozedura arautzen dituen abenduaren 27ko 1434/2002 Errege Dekretuak (2002-12-31ko BOE) ezartzen dutenez, gasa banatzeko sareak eraikitzeko, beharrezkoa da aldez aurretiko administrazio-baimena.

3.– Uztailaren 28ko 919/2006 Errege Dekretuaren bitartez (2006-09-04ko BOE), Gas-erregaiak erabili eta banatzeko arautegi teknikoa eta haren jarraibide tekniko osagarriak onartu ziren. Bada, arautegi horretan eta bere ICG 01etik 11rako jarraibide osagarrietan ezartzen denez, aldez aurretiko administrazio-baimena behar da bai gasa banatzeko sareak eraikitzeko, eta bai sare horiei lotutako biltegiratze-zentroak eraikitzeko ere.

4.– Gas kanalizatuko zerbitzu publikoaren instalazioak zerbitzuan jarri eta baimentzeari buruzko ekainaren 9ko 107/1998 Dekretuak (1998-06-26ko BOE) besteak beste honako hauek izapidetzeko prozedura ezartzen du: B presio ertainaren bidez garatutako hiri eta hiriarteko sareak eta industria-guneak.

5.– Eusko Jaurlaritzako Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saileko (Iehengoa) Industria, Energia eta Meategien Zuzendaritzaren 1998-01-12ko Instrukzioa, gas kanalizatuko hartune eta sareetarako administrazio-baimenen espedienteak izapidetzeari buruzkoa.

6.– Informazio-erakustaldia egina dago, hain justu ere 2014-01-28ko El Diario Vascon, 2014-01-30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2014-02-19ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta, hogei egunez, Oiartzungo iragarki-oholean.

7.– Jendaurreko informazio-erakustaldia 2014ko martxoaren 14an bukatu zen, eta ez zen inolako alegaziorik aurkeztu Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan.

8.– Espedientearen izapideetan eta edukian egiaztaturik dago bete egiten direla indarreko legerian eta aplikatu beharreko gainontzeko legeetan ezarritako baldintzak eta betekizunak.

Aipatutako lege-xedapenak ikusita eta oro har zein haiekin bat etorrita aplikagarri diren gainerakoak oinarri hartuta, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariak honako hau

EBAZTEN DU:

1.– Aipatutako instalazioak herri-onurako deklaratzea. Urriaren 7ko 34/1998 Legearen 105. artikuluan xedatutakoari jarraikiz (1998ko urriaren 8ko BOE), herri-onurakoa dela deklaratzeak berekin dakar ondasunak okupatu beharra edo eraginpean hartutako eskubideak eskuratu beharra, eta, horrenbestez, horiek lehenbailehen okupatuko dira Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluaren ondorioetarako.

2.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Industria Sailburuordetzan, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala agintzen da 4/1999 Legean (lege horrek azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen, hau da, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Vitoria-Gasteiz, 2014ko maiatzaren 16a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA.